GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Martxoak 8. Emakumeen Nazioarteko Eguna

Euskadin 6 urtetik beherako umeen zainketaz gehiago arduratzen dira amak, aitak baino

2021eko martxoaren 8ko kanpainaren leloa hauxe da: "*Nork zaintzen du? Jar dezagun agerian. Egin dezagun dagokiguna*" eta zaintza-lanak ikusarazteko, baloratzeko eta gizarte osoaren artean banatzeko beharra azpimarratzen du.

Zainketa lanetan dagoen desparekotasun hori agerian uzteko, Gazteen Euskal Behatokitik 6 urtetik beherako umeen zaintzan aitek eta amek izandako proportzioari buruzko datu batzuk azalduko ditugu.

Eustatek 2019an egin zuen Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren datuen arabera, lanaldian zehar, eskola-ordutegitik kanpo, 0 eta 2 urte bitarteko ia ume erdiak aita edo ama ez diren beste senitarteek edo ordaindu gabeko beste pertsonek zaintzen dituzte (% 46,6). Umeen % 27,3ren zainketaz ama eta aita arduratzen dira. Baina gurasotako batek bakarrik zaintzen duen umeen kasuetan jartzen badugu arreta, ikus dezakegu zaintza-lanak batez ere amen eskuetan geratzen direla: umeen % 18,9 amek zaintzen dituzte eta % 1,2 bakarrik zaintzen dituzte aitek. Horrek esan nahi du gehienbat emakumeek murrizten dituztela beraien lanaldiak seme-alabak zaindu ahal izateko.

3 eta 5 urte bitarteko umeen kasuan ere badago desparekotasun hori aiten eta amen artean, zaintza-lanen erantzukizuna dela eta.

Euskadiko biztanle okupatuen 6 urtetik beherako seme-alabak, eskola-ordutegitik kanpoko lanaldian zehar eginiko eguneroko zainketaren arabera (2019)		
(%)	0 eta 2 urte bitarteko umeak	3 eta 5 urte bitarteko umeak
Ama	18,9	14,0
Aita	1,2	1,1
Biak	27,3	23,4
Senitartekoak edo ordaindu gabeko pertsonak	46,6	46,5
Ordaindutako beste pertsona bat	0,7	8,0
Ikastetxeak	5,4	7,0
Guztira	100	100
Iturria: Eustat (Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta)		

Beharrezkoa da zaintza-lanetan guztiok arduratzea. Lan horiek emakumeen, gizonen, erakundeen eta gizarte osoaren artean banatu behar dira, eta ez dira gehienbat emakumeei leporatu behar; izan ere, askotan, emakumeek lanaldi bikoitza egin behar izaten dute, edo ordaindutako lanaldia murriztu behar izaten dute, eta, ondorioz, beren karrera profesionala mugatu.